



FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduera enpresa bat matruxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideen multzoa da.

Alde batetik, Bubble-en kasuan, **ekoizpenaren baliabidea** ezinbestekoa da; izan ere, webgunea eta aplikazioa uneoro egunereatua izatea ezinbestekoa baita bezeroentzako.

Bestalde, **marketinari eta salmentari** dagokioenez, enpresa txiki hau ezagutarazteko beharrezkoa da marketin plan on eta egoki bat zehaztea. Horretarako, sare sozialak erabiliko dira, gazteengan horien erabilera izugarria baita.

Banaketari dagokioenez, logistika osatzen duen arlo garrantzitsuena informatikoa da. Izan ere, ordenagailuen erabilera ezinbestekoa baita webgunea sortu eta hori moldatzeko. Hala ere, bertan idazten den informazioak eta idazten duten profesionalak ere osatzen dute.

Finantza-kudeaketan zentratuz, webguneko irabaziak modu egokian kudeatzeko jarraipena egitea ere ezinbestekoa den heinean, kontabilitatea ongi egitea ere baita.

Azkenik, **giza baliabideei** dagokionez, hitzaldiak ere eskainiko dira gaien adituak diren pertsonen eskutik; hau, enpresa honen parte garrantzitsuenetariko bat baita.

